

ALERTAK. Istripu Errepikatuak: ESKAILERA MUGIKORRAK



Mota horretako istripuak **tipologia askotakoak izan daitezke, erabilitako eskailera motaren arabera, dela igotako pertsona erortzeagatik, dela eskaileraren beraren akatsagatik edo irristatzeagatik.**

Arau orokor gisa, eskailera mugikorrak **lantokitik igotzeko eta jaisteko bakarrik erabili behar dira; EZ bertatik lan egiteko.** Altuerako lanak egiteko, bitarteko osagarri egokiagoa erabili beharko litzateke, eta, ezin bada, prebentzio-neurri osagarriak hartu.

IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- **ESKAILERATIK IRRISTATZEA, EUSKARRI** desegokia izateagatik edo **OKER JARRITA** egoteagatik.
- Eskailera-elementuak **HAUSTEA** (maila, langa, irekidura-mugatzaila, etab.).
- **OREKA GALTZEA** eskailera-mailetan irristatzean, zikin, heze egoteagatik edo oinetako desegokiak erabiltzeagatik.
- **KARGA** astunak edo handiak maneatzea eskaileran bertan edo eskaileratik.
- Bi edo **PERTSONA GEHIAGOK ALDI BEREAN** erabiltzea.
- Eskaileratik gora eta behera ibiltzea, eskailerari **BIZKARRA EMANDA**.
- Eskailera **MUGITZEA** pertsona bat **GOIAN** dagoen bitartean.
- **3,5 m-tik GORAKO** altueratik lan egitea, erorikoen aurkako **GAILUAK** erabili **GABE** edo ordezeko **BABES-NEURRIAK** hartu **GABE**.
- Eraikuntza **PROPIOREN** esku-eskailerak erabiltzea, horien **ERRESISTENTZIAREN BERMERIK** edo **EGOERA ONEAN** egon gabe.
- Patologiengatik eskailerekin lan egiteko egokia ez den pertsonaren **OSASUN EGOERA**, batzuetan ezezagunak (bertigoak, etab.); edo beste arrazoi batzuegatik.
- **TENSIOAN** dauden elementuetatik **SEGURTASUN-DISTANTZIAK** ez errespetatzea eta/edo arriskua ekiditeko eskailera **DESEGOKIA** erabiltzea, batez ere **ARRISKU ELEKTRIKOA**.
- Eskailera mota edo konfigurazio bakoitzerako baimendutako **GEHIENKO KARGA GAINDITZEA**, edo eskailera horiek egin ziren helburuetarako ez erabiltzea (adibidez, eskailera bikoitzak bakun gisa erabiltzea; posizio horizontalean, hala nola zubiak, pasabideak edo plataformak; edo aldamio baterako euskarri gisa).



PREBENTZIO-NEURRIAK

- **EUSKARRI** ona izatea: ez inklinatuegi, sartu nahi den mailatik 1 m irtenda, zapata irristagaitzekin, finkapenarekin eta/edo beste pertsona baten laguntzaz lan eginda; hala badagokio, irekidura-mugatua duena, guraizekoa bada.
- Eskailera eta haren elementu guztiak **EGOERA ONEAN** mantentzea.
- Oinak **ONDO EUSTEN** dituzten eta koipez, olioaz edo bestelako material irristakorrez **GARBI** diren **OINETAKOAK** erabiltzea. Ez erabiltzea **EGURALDI TXARRA** denean.
- Eskaileraren **ERABILERA ZAKARRA EZ EGITEA**: **KARGA** astunak edo handiak maneatzea eskaileran bertan edo eskaileratik, eskailera bi pertsonak edo gehiagok **ALDI BEREAN** erabiltzea, eskailerari **BIZKARRA EMANDA** igotzea edo jaistea, eskailera **MUGITZEA** pertsona bat **GOIAN** dagoen bitartean, etab.
- **3,5 m-tik GORAKO** altueratik lan egitea, erorikoen aurkako **GAILUAK** erabilia edo ordezeko **BABES-NEURRIAK** hartuta. Eskailera 5mkoa baino luzeagoa bada, erreforzaturia izango da.
- Eraikuntza **PROPIOKO** esku-eskailerak **EZ** erabiltzea, horien **ERRESISTENTZIAREN BERMEA** izatea edo **EGOERA ONEAN** egotea.
- Bertigoak edo batzuetan ezezagunak diren bestelako patologiak dituzten pertsonak **EZ** dute eskailerarik erabili behar.
- Tentsioko elementuei dagokienez eskatzen diren **SEGURTASUN-NEURRIAK** errespetatzea eta berariaz arrisku horien aurrean eraikitako eskailerak erabiltzea.
- **INOIZ** ez erabiltzea eskailerarik **BESTE HELBURU BATZUETARAKO** eraiki badira. Hala, ez dira eskailera bikoitzak bakun gisa erabili behar; posizio horizontalean, zubi, pasabide edo plataforma gisa; edo aldamio baten euskarri gisa. **EZ GAINDITZEA BAIMENDUKO GEHIENKO KARGA**.
- Langileek eskaileren erabilerari buruzko **PRESTAKUNTZA** eta **INFORMAZIOA** izan behar dute.